


Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko ekainak 22

San Juan
bezpera

Alkate
barriaz
elkarizketa

Iñurrategi
anaiak
Himalayara



Enpresa barriak martxan

Uda honetan, oparia seguru.



Poltsa eta Motxila bikotea. Berehala entregatzekoa. Bi hilabete t'erdirako 175.000 pta. sartzegatik.

Eta gehiago.

50.000 opari +



Egunero milaka opari banatzen ditugu. 25.000 pta.ko sarrera bakoitzagatik aukera bat.


Eta are gehiago.

%5* erainoko UTB

* Lehen 150.000 pezetak %0,10ean. UTBar buruzko adibideak: Super 55 Libreta: 1.000.000 pta.ri, %4,32. 5.000.000 pta.ri, %5,06. Superlibreta: 1.000.000 pta.ri, %3,45 5.000.000 pta.ri, %4,04.

Uda honetan Euskadiko Kutxan, zure aurrezkiak Superlibretan edo Super 55 Libretan sartzegatik askoz gehiago irabaziko duzu. Poltsa eta Motxila bikotea eramango duzu. Egunero banatzen ditugun milaka oparietatik hainbat irabaz ditzakezu. Eta uztailearen 26an zozketatzen ditugun 5 Fiat Cinquecentotik bat irabazteko aukera duzu. Gainera, interes gehiago lortuko duzu.

Informa zaitetz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, goizez nahiz arratsaldez. Edo 901-333 444 telefonoan, gaueko 10ak arte.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zure lanarekin gustora zaude? Aldatuko zenuke?

Juan Carlos Herran
(Langile)

Bai, gustora nago. Fagorren aprobiziona-
menduan lan egiten dut.
Lanpostua hobetzeko
baldin balitz aldatuko
nuke nire lana.



Mari Carmen Matas
(Langile)

Bai, Arrasateko Zen-
truen lan egiten dut.
Planteatu izan dut lanez
aldatzea, urte asko da-
ramat lan honetan eta.



Mari Carmen Vales
(Langile)

Bai, gustora nago
oraingo lan honekin.
Gehiago kobratuko ba-
nu, aldatuko nuke lana
baina ez edozein lanen-
gatik.




Carlos Martin
(Langile)

Bai, kooperatiba txiki
batetan lan egiten dut eta
momentuz gustora nago.
Kokoteraino nagoenean
bakarrik planteatu izan
dut aldatzea, bestela ez.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

PNVko ALKATEA PSOeri ESKER

Hauteskunde kanpainen zehar, PNV eta Earen arteko paktoa, independente batzuk bultzaturiko ekimena bezala aurkeztu zaigu. Ez omen zuen tripartitoarekin zerikusirik.

PNVren hitzetan, garbi jokatzeko ari ziren, herriari aurretik azaldu bait zieten euren asmoak. Baina gero, ikusi dugu alkatetza lortzearen ez dutela salantzarik izan alderdi Espainol baten laguntza eskatzeko.

EAK, bere aldetik, biolentzia babestea leporatu zion HBri, eta horregatik ez zutela gurekin ezer jakin nahi. Ordea, ez dute inongo oztoporik hainbat biolentzia (GAL, torturak, presoiei emandako jipoiak, sakabanatze politika, etab.) ordezkatzen duen PSOeren kide izateko.

Joku garbia al da hau? Noiz bihurtu da PSOE alderdi abertzalea? Zer eman diozue PSOeri euren botoen ordez?

Hasieratik esan genuena baieztatu diguzue, konponketa horren helburu bakarra HERRI BATASUNARI alkatetza kentzea zela.

Orain pozik egongo zarete, zuen ametsak gauzatu dituzue eta, baina Atxabaltarrok ez dugu ahaztuko PNVk alkatetza eskuratu badu, PSOeri esker izan dela.

ARETXABALETAKO HERRI BATASUNA

Oharra: Aurreko alean erru handi bat egin genuen. Antonio Corres agertzen zen argazki batetan Alberto Garcia zela jarri genuen. Barkatu gaizki esanak eta ondo esanak gogoan hartu.

Aretxagazetako Batzordea

San Juan bezpera



Aurten 77. urtean jaiotako kinttoek tantaia altxatuko dute

Aurten ere, ekainaren 23an San Juan bezpera ospatuko da Atxabaltan. Arratsaldeko 6etatik aurrera ekintza mordoa izango da eta egun horretan ohikoa den bezala datorren urteko kinttoek tantaia jasoko dute. Egitaraua ondorengo ekintzek beteko dute:

Arratsaldeko 6etan: Atxabaltako **txistulariekin kalejira eta buruhaundiak.**

Arratsaldeko 7etan: **Kaleko animazioa "Traperos del Rio" taldearekin.**

Arratsaldeko 8etan: **Loramendi Dantza Taldearen emanaldia.**

Gaueko 10etatik goizalderarte: **Txinparta musika taldearekin dantzaldia herriko plazan.**

Gaueko 10,30etan: **SAN JUAN SUA.**

Goizaldean, ohiturari jarraituz, kinto berriek tantaia jasoko dute.

Jon Sarasua eta Jon Ander Ugaldere epaiketa

Aste honetako martizenean egin diote epaiketa Jon Sarasuari, insumiso izateagatik. Bere anaia Iñaki itzultzaile lanetan ipinita "maitasun txiki eta inperfekto" batean oinarrituta egin zuen defentsa Jonek. Hiru testigu izan zituen; Andoni Egañak, bertsotan eman zuen bere lekukotza, Koldo Tapiak berriz, ejerzitoko mandoak aipatu zituen; epaitegian barrea sortaraziz. EHUko irakasle kaleratua den J.R. Etxeberriak unibertsitatean insumisioari buruz dagoen ikuspegia azaldu zuen.

Fiskalak 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eskatzen duela eta, auzitegiaren kanpokaldean bildutako bertsolari gazteek "Kartzelako gaia, Jon Sarasuak tongo. Neurria 2-4-1" zioen pankarta zabaldu zuten.

Eguaztenean, Jon Ander Ugaldere Aretxabaletako gaztetxeko arduradunari tokatu zitzaion postu berean egotea.

Ludotekako aste berezia

Ekainaren 26tik 30era, Loramendirekin aurtengo oporrak ondo hasteko aukera daukate 5etik 12 urtera bitarteko haurrek.

- Ekainaren 26an **HORMA IRUDIAK** egingo dira.

- 27an **PLASTILINAZKO IRUDIAK.**

- 28an **GATZ POTEAK.** Bakoitzak bere potea ekarri beharko du.

- 29an ludoteka normal zabalduko da.

- 30ean **PULTZERA ETA KOILARRAK.**

Uztailean UDALEKU IREKIETAN dabilzanendako bakarrak zabalduko da. Beraz, uztailean ludotekara joan gura duenak **ORTZADAR** rera joan beharko du lehenbailehen.

Jasone Garcia-Etxaberen partez Miriam Priego dago momentu honetan ludotekari lanetan. Miriam urrirarte egongo da, Jasone itzuli arte.



GARAGE NORTE S.L.


Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

BASTER-ALDE JATETXEA



SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

CONSTRULAN ARQUERO ANAIK

Indusketa eta
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11

Tfno eta faxa: 79 01 51

ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78

Aretxabaleta

Coprecik enpresa holandar bat erosi du


- ❑ European probeedore garrantzitsua izateko pausu garrantzitsua eman du
- ❑ Coprecik bi presostato ditu momentu honetan

Coprecik Holandako Nijmegen hiriko "Controls" enpresa erosi du. Enpresa honek beste aktibitate batzuen artean, labadora eta garbigailuendako presostatoak egiten ditu.

Presostatoa, labadora eta garbigailuetan ura kontrolatzen duen pieza da.

Coprecik ere presostato hauek egiten ditu baina produktu hau osatu beharrean aurkitu da. Egoera honen aurrean bi irtenbide zituen, produktu barri bat egin edo eta produktua erosi. Horregatik enpresa desberdinak aurkitzen hasi zen eta Holandako enpresa honekin akordio batera iritsi eta erosi egin zuen. Modu honetan Coprecik bi presostato dauzka, eta ez du produktu barri bat huts hutsetik desarroilatatu beharrik izan. Produktu horren patentea Coprecirena da orain.

Holandako enpresa honek fabrikatzen duen presostatoa, teknikoki Coprecik produzitzen



Coprecik bezala beste aktibitate batzuen artean presostatoak egiten ditu Holandako Controls enpresak

duena baino hobea da baina merkatu txikia daukate. Produktua ondo lortua eta kalitate onekoa den arren merkatuan ez dira espezialistak eta horregatik hemengo sistemak han inplantatzea izango litzateke Copreciren nahia.

Coprecik 900 langile inguru dituen bitartean enpresa holandarrak 30 langile besterik ez ditu.

Aurrerapausu haundia

Erosketa honek aurrerapausu haundia suposatu

du. Copreciren plan estrategikoa European probeedore inportanteentarikoa izatea da eta hori lortzeko pausu garrantzitsua eman du. European merkatu zabalagoa lortu du eta bide batez hemengo produktua ere hobetu gura du.

Holandako enpresa honetan bertakoak diren 30 pertsonak lan egiten dute. Gerentea ere bertakoa da baina zuzendari gisa hemendik joandako atxabaltar bat dago, **Angel Mateo** hain zuzen ere.

Laburtuz, esan daiteke, erosketa honekin Coprecik merkatua irabazi duela, teknologikoki aurrerapausu haundia eman du, bezero barriak lortu ditu eta hauengan konfidantza irabazi du. Merkatuan indarra gehitu eta produktuen katalogoa haunditu du.

Aurrera begira Coprecik, geldi ez dagoela erakutsi nahi du eta probeedore garrantzitsua bihurtu nahi du. Horretarako merkatu globalean indarra gehitzea beharrezkoa ikusten du merkatuko konpetibitateari aurre egiteko.

Mexikon ere planta bat

Holandako enpresa hau, ez da Coprecik atzerrian duen enpresa bakarra. Mexikon ere bakauka beste planta bat. Azken hau barbakoendako grifoak egiten dituen enpresa bat da eta 150 pertsona inguru dabilta bertan lanean. Datozen 2, 3 urteetan hemendik joandako bost lagun egongo dira bertan lanean.

DOIKALSE

Elektroerosioa
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

FOTO

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Udalak eraikuntzak margo- tzeko laguntza emango du

Aretxabaletako udalak herriko eraikuntzen zainketa eta manteni-
mendua bultzatu asmoz, hiri-
gunean dauden etxebizitzaren bat
margotu gura izan ezkeru
laguntzak emango ditu.

Laguntzaren diru kopurua,

margotutako fatxadaren metro
karratu bakoitzeko 100 peze-
tatakoa izango da.

Gai honi buruz informazio
gehiago gura izan ezkeru Uda-
letxeko Hirigintza Departamen-
tura jo behar da.

Joseba Españako txapeldun elbarritu fisikoen txapelketan



Joseba Larrinaga 1.500 metroak korri-
tzen. Lasterketa honetan 2. gelditu zen

Joseba Larrinagak joan den
ekainaren 10 eta 11an elbarritu
fisikoen kategorian, bi karrera
korritu zituen Zafra, Badajozko
herrian. Atxabaltatik 3 lagun joan
ziren, Julito Revuelta, Ramon
Eraña eta Joseba.

Ekainaren 10ean 1.500 me-
troak korritu zituen eta karrera
hontan 2. gelditu zen, 4'30"tako
denbora eginez. Lasterketan tiraka
joan arren bukaeran sprintean
beste batek irabazi zion.

Ekainaren 11an oster, 5.000
metroak korritu zituen. Oraingo
honetan garaipena lortu zuen,
horretarako 17'10"tako denbora
behar izan zuen.

* Iaz bezala, Aretxabaletako
Udal liburutegiak liburu gida
atera du oportretan irakurtzeko
interesgarriak izan daitezkeen
liburu zerrendaz osatuta.
Gida honek haur, gazte eta
helduendako liburu interesgarriak
aurkezten ditu. Beraz, liburu
hauek zeintzuk diren jakin gura
ezkeru liburutegira joatea
besterik ez dago. Gida honen
izena **Biblioporrak** da.
Bide batez, gogoratu liburutegia
goizez 11etatik ordu 1etara
zabaltzen dela eta arratsaldez
5etatik 8etara. Beraz, aukera ezin
hobea eskaintzen du liburutegiak
oportretan irakurtzeko.

* Uztailean **AEROBIC**
ikastaroa izango da. Goizez
9,30etatik 10,30etara ondorengo
egunetan: astelehen, asteazken
eta eguakotxetan. 2.000 pezeta
ordaindu beharko da. Izena
emateko Kultur Etxera jo behar
da edo 79 07 93 telefonora deitu
eta Piligatik galdetu.

JANTZI DENDA

ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

Marti


Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A.**

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

Alkate barriaz berbetan



Juan Antonio Rodrigex izango dugu hurrengo lau urteetan Atxabaltako alkate. Juan Antonio, Ederlaneko kalitateko zuzendaria da. EAJk botu kopuru gehien eskuratu zuen joan den zapatuan Udaletxean egin zen alkate berriaren aukeraketan. Botazioa azkar burutu zen, EAJk 8 botu eskuratu zituen, HBk berriz 4 botu eta botu bat nuloa izan zen.

□ Nola hartu duzu berria?

Bi modutara. Alde batetik poztu egin naiz, herritarrek guregan konfidantza jarri dutela ikusi dut eta, eta bestetik triste, herritarren alde inportante bat alde ez dagoelako.

□ **Alkate irtetzea espero zenuen?**

Aukera asko genituen. Hauteskunde aurretik EAko independenteak eta guk proiektu bateratu batekin aurkeztu ginen eta.

□ **Zer egiteko asmoa duzu orain?**

Lehenengo gobernu batzordea ordenatu beharra dago. Orain bilerak egingo ditugu gobernu nola banatuko den jakiteko. Beste partidu politiko guztiek udaletxean parte har dezaten zabalik gaude.

□ **Nola ikusten duzu zure burua alkate moduan?**

Niretzat guztiz arlo barria da. Orain artean gestore lanetan ibili

naiz. Ni gestorea naiz politikoa baino gehiago. Bide horretatik dakidana emango diot herriari. Garbi eduki behar da errekursoak eskasak direla eta logika baten barruan egin behar direla gauzak.

□ **Lehenago holako lanetan ibilita zaude?**

Politika munduan ez, baina arduradun moduan ibilia naiz, Almenen, e.a. Lan hau nahiko ondo joan zitzaidan. Inguruan ekipo ona tokatu zitzaidan eta sortea izan nuen. Lehenengo jende ona bilatu behar da eta gero indar guztiak koordinatu.

□ **Herritarrekin ze jarrera izan behar du alkateak?**

Lehenengo argi izan behar du, herriak dituen beharrak direla garrantzitsuenak. Behar hoiaren arabera planifikatu beharra dago.

□ **Zelakoa izango litzateke zuretzat alkate ideal?**

Pertsona argia, gestore ona dena eta entzuten dakiena.

□ **Momentu honetan ze ikusten duzu premiazkoena herrian?**

Zaila da hori esatea, lehenengo herritarrei entzun beharko nieke. Langabezia, arazo gogorra dela uste dut eta hor lan asko egin beharko da. Gure herrian industria munduak du etorkizun haundiena eta hortik jo behar da.

□ **Nola konponduko zara zure lana eta alkate lana egiteko?**

Nire asmoa Udaletxeari orduz kanpo dedikatzea da. 13 lagun gaude lan egiteko eta gauzak ondo organizatuta eta bakoitzak bere arloan gogoz lan egiten badu aurrera jo daiteke.

□ **Zer iruditzen zaizu orain artean alderdi botatuenak alkatez izateak eta orain berriz ez?**

Aurten gauza desberdina gertatu da. Hauteskunde aurretik akordio bat zegoen EA eta EAJko kideen artean. Gure interpretazioa, baten botoak gei bestearnak gure botoak zirela izan da.

□ **Honek arazoak ekarriko dituela uste duzu?**

Hitzegin beharra dago. Nire planteamendua ez da alderdi politiko batena eta uste dut akordio batetara iritsi gaitzkeela. Gure iluzioa herriaren alde egitea da eta hau helburua dela ikusiz akordio batetara heldu gaitzke. Denok adostasun batetara iritsiz askoz ere gehiago lortuko dugu.

**JOSU
HARATEGIA**

**URDAITEGIA-
GOZOTEGIA
KROASANTEGIA
"JANARI
PRESTATUAK"**

Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Hortz klinika

Imanol Arrazola Otxoa
Mediku-Odontologoa
Col. 405

Otalora 18 - 1.º D
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tf: 79 93 55

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Esan beharrik ez legoke, Leintz bailarako bihotzean sortutako mugimendu kooperatiboak betidanik izan duela lotura estu bat gure herriko kultura, tradizio, eta nola ez, hizkuntzarekiko.

Hasiera batetan, informalki izan bazen ere, ia beti gertatzen den bezala, pertsona batzuren ardurei esker eman ziren lehendabiziko pausuak. Guzti honek bere fruituak jasoko zituen 1976. urtean Ulgorren Euskara Batzorde berezi baten sorrerarekin. Batzorde honen bitartez zenbait aurrerapen lortu izan ziren kooperatiban, hala nola, Lanpostu batzuren perfil linguistikoak definitu, Euskalduntze eta Alfabetatze klaseei ekin, Euskara Teknikariak, etab., etab.

Euskara kooperatiban



Aitor Irure

FAGOR AUTOMATIONeko Presidentea


Edonola, mugimendu guzti hauek gorabehera nabarmenak izan dituzte denboran zehar, ezin bait dugu ahaztu kooperatibak, enpresak diren neurrian, Ekonomia zikloetara lotuta daudela.

Gaur egunera abiatuz eta erabileraren ebaluaketa egiterakoan, bi atal ezberdin bereiztu ditzakegu, idatzia eta ahozkoa.

Erabilera idatzia dexentea dela esan genezake, adibide gisa horra hor "TU LANKIDE" aldizkaria, "JAKINA" (Fagor), "BARRUTIK" (Copreci) eta "KONTARI" (MCC) orrialde informatiboak, elebitasunez guztiak, edota euskaraz soilik. Era berean FAGOREn, batzarretako deialdiak zein akordioak euskaraz eta gazteleraz jasotzen dira.

Bestalde, argi dago ahozko erabilera ofiziala zertxobait problematikoagoa dela, Batzar Nagusietan badu presentzia baina gehien bat testimoniala, agurrak eta beharbada punturen bat edo beste euskaraz tratatzen dira. Kontseilu Errektoretan zein Kontseilu Sozialetan berriz ia ezinezkoa bihurtzen da (konposaketaren arabera) nahiz eta salbuespen batzuk posibleak izan, FAGOR AUTOMATIONen esate baterako, izan zen garai bat Errektore guztiak euskaldunak izanik, bilerak euskaraz egiteko akordioa hartu zela.

Etorkizunak berriz, datozen generazio euskaldun eta alfabetatuei esker, irudi politagoa eskeini dezake.



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**MAITE
ILEPAINDEGIA**

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABAETA

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

**ZUHAITZ
jatetxea**



Tfnoa: 71 46 08

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 48 77 ARRASATE

Jose Angel Lazkano: "Nagusien talde on bat sortzea beharrezkoa da"

Badira 29 urte, Loramendi dantza taldea sortu zena. Atxalbaltako mutil talde batena izan zen hasierako inizatiba.

Urtebete eskaz pasatu zenean, monjetan zebiltzen neska talde bat beste batzuekin elkartu eta hauek ere dantza taldera hurbildu ziren. Horrela Loramendi dantza taldea sortu zen.

Hasiera batetan, kanpoko jendea etortzen zen erakustera, baina gerora herriko hainbatek jardun zuen dantza irakasten. Hasierako dantzari haiek Izurietako eleiza berriztu zenean eskaini zuten estreinuko dantzaldia.

Pertsona asko pasatu da Atxalbaltako Loramendi dantza taldetik. Baina momentu honetan Jose Angel Lazkano da zuzendaria. Jose Angel gaztetatik hasi zen dantzan. Lehenengo ikasle moduan eta gero gaztetxoekin erakusten ere bai. "18 urterarte dantzatzeko eta dantza irakasten aritu nintzen. Gero soldaduzka egin ostean 22 urte nituela zuzendari izendatu ninduten."

Orditik hona aldaketa haundiak egon dira "lehen gehiago entsaiatzen zen, dantza beste edozein ekintza moduan serioago hartzen zen. Lagun gutxiago geunden, dantza gutxiago ikasten ziren baina orain baino kalitate gehiago zegoen".

Gaur egun 80 neska-mutiko daude Loramendi dantza taldean. 5 urtetatik hasi eta nagusien

Jose Angel Lazkano, Loramendi dantza taldeko zuzendaria da. Hamaika urte pasatu dira zuzendari postua hartu zuenetik eta oraindik hor dirau.



talderaino. Baina ume askok utzi egiten dute dantza adin batera heltzen direnean. "Txikiak direnean ume asko etortzen da dantza ikastera, baina 13, 14 bat urtekin mutil gehienek utzi egiten dute dantza. Neskek normalean jarraitzen dute."

Momentu honetan dantzako irakaskuntza Leizarra musika eskolaren barruan dago baina gainerakoa Loramendi dantza taldeak eramaten du, haurren egunetara irteerak, e.a. Otalora 27an ematen dira dantzako klaseak eta lokala ondo dagoela adierazi digu Jose Angelek "dantza egiteko ispilua daukagu, egurrezko lurra, eta dantza egiteko barrak." Baina musika ekipa on batek falta egiten duela

ere gehitu du.

Aurrera begira, nagusien taldea indartzea beharrezkoa dela adierazi du Jose Angelek, "Planak eduki baditugu eta onak, baina garrantzitsuena nagusien talde on bat izatea da. Honek gazteengan beste ikuspegi baikorrago bat sortuko luke dantzaren inguruan. Azken finean nagusiok gara gazteen ispilu. Gazteenek, dantzak indarra duela ikusi behar dute eta gustatu egin behar zaie." Honez gain beste arazo garrantzitsu bat ere azpimarratu du, nagusien taldean mutilak falta direnena. Nora begira daude ba, gure herriko mutilak?



TABERNA-BERRI

JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

"ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"
Tefonua: 79 62 80
ARETXABALETA (GIPUZKOA)

URBALTZ

TABERNA

Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA



J. ALTUNA
Zurgindegia

Sukalderako
altzaria

Basabe Poligonoa, A-2-3
79 72 55 Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegi
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

Ez da erraza proiektu bat egin eta hau aurrera ateratzea baina Olatz Iglesias eta Ana Garciak Udalak bultzatutako "Arrisku Soldata" programaren bidez euren proiektua aurrera ateratzea lortu dute. Bi proiektuak desberdinak dira eta benetan interesgarriak. Sei hilabete izan dituzte euren enpresa bideragarria izan daitekeen ala ez aztertzeko. Jadanik, sei hilabeteak pasatu direnean, beraien enpresarekin aurrera dijoaz. Baina zer da bi neska hauek egin dutena?

Olatz Iglesias: "Nik uste nuena baino interes haundiagoa azaldu dute bezeroek"

□ Zertan datza zure proiektua?

Bideoz, erreportaiak egitean datza nire proiektuak. Eskoletako anuarioak egitea, herriko elkarte kulturalen ekintza berezien edo puntualen grabaketak, udaleko ekintza kulturalen erreportaiak egitea, enpresetako publizitatea egitea, pertsona partikularren ezkontzen, bataioen, erreportaiak egitea, e.a.

□ Nola ausartu zinen zure kabuz enpresa bat montatzen?

Kamararekin ibiltzea beti gustatu izan zait baina alor honetan lanen bat aurkitzea oso zaila da. Horrela, lanik ez zegoenez, neure kabuz zerbait egitea egokiena izango zela pentsatu nuen eta aukera aprobetxatu nuen. Udalak, "Arrisku Soldata" programa aurkeztu zuenean, aukera ona zela pentsatu nuen.

□ Ausarta izan behar da horrelako bide bat hartzeko?

Bai, ausarta izan behar da eta batez ere inbertsio haundiak egiten badituzu.

□ Proiektua bideratzeko



zein pauso jarraitu dituzu sei hilabetetan zehar?

Gutxi gorabehera bideoaren mundua ezagutzen nuen eta sei hilabete hauetan proiektua bideragarria izan zitekeen edo ez ikertzen aritu naiz. Horretarako bezero batzuk aukeratu ditut, ikastetxe, enpresa, e.a. eta nire lana azaltzen aritu naiz, interesatzen zaien edo ez jakiteko.

□ Gustora zaude lortu duzunarekin?

Bai, nik pentsatzen nuena baino interes haundiagoa azaldu dute bezeroek.

□ Zer izan da sei hila-

bete hauetan gogorrena?

Zailena aurpegia ematea izan da eta bezeroei egiten ari naizena azaltzea. Orokorrean jendea oso ondo portatu da. Hala ere badago oso desagradablea den jendea ere.

□ Ze laguntza izan duzu?

Udalak, lokala eta soldata eman digu. Honez gain ikastaro batera joan nintzen eta ikastaro honetan asko ikasi dut. Ikastaro honengatik izan ez balitz galduta egongo nintzen.

□ Dagoeneko baduzu bezerorik?

Bai, enpresa batzuk

publizitatea egiteko esan didate. Honez gain udalak Atxabaltako jai desberdinak bideoz grabatzeko eskatu dit, ezkontza batzuren erreportaiak ere egin behar dut eta eskola eta elkarteek ere grabaketa batzuk egiteko eskatu didate.

□ Beraz, lanean hasteko prest zaude?

Beno, oraindik ez dut ekipoa erosi. Prestamo bat eskatu dut eta abuzturako ekipoa izatea espero dut. Irailean hasiko naiz grabaketa lanetan.

□ Zein izango da zure ekipoa?

VHSko grabazio eta postprodukzio ekipoa profesionala.

□ Inbertsio gogorra ematen du...

Bai, bezeroek erakutsi duten interesak hasieran uste nuen baino inbertsio haundiagoa egitera eramane nau.

□ Eta bukatzeko Olatz, etorkizuna nola ikusten duzu?

Momentuz ondo, baina badakizu mundu hau bizkor aldatzen da. Momentuz oso bideragarria da, baietza askok eman dute, baina gero zer gertatuko den...

Ana Garciak, aterpetxe bat ireki du Azatzan (abatetxea). 40 lagunek lo egiteko tokia dago eta gehienbat ikastoletako hurrei zuzenduta dago. Umeek naturaz goza dezaten toki aproposa da. Eskumaldean aterpetxeari buruz egin duen triptikoa agertzen da.



Ana Garcia: *“Turismoa promozionatzeko inguru zoragarria daukagula uste dut”*

Zertan datza zure proiektua?

Hasiera batetan nire ideia Atxabaltan itinerario turistikoko batzuk egitea zen. Gero aterpetxe bat ere aurkitu nuen eta momentu honetan aterpe bat martxan jarri dut Azatzan.

Nola ausartu zinen zure kabuz enpresa bat montatzen?

Udaletxeak “Arrisku Soldata” programa aurkeztu zuenean, aukera ona zela pentsatu nuen. Turismo munduan ibilita nengoen lehenago ere, baina Bizkaia aldean. Orduan han egiten nuen lana hemen ere egin zitekeela pentsatu nuen, Atxabaltan toki potitak dauzkagu eta.

Ausarta izan behar da horrelako bide bat hartzeko?

Horretarako beharra daukazunean ausarta izan behar duzu.

Proiektua bideratzeko zer pauso jarraitu dituzu?

Idea konkreturik ez neukan hasieran eta ideiak lotzen hasi nintzen. Turismo alorrean, informazioa jasotzen hasi nintzen, tu-



rismo ofizina desberdinetara deituz. “Etxez-Etxe” liburuan Atxabaltan aterpetxe bat zegoela irakurri nuen. Aterpetxea, nire ideiarekin bat zetorren eta orduan aterpetxearen jabearekin harremanetan jarri nintzen. Aterpetxea erabiltzeko akordio batetara iritsi nintzen. Hemendik aurrerako lana itinerarioak diseinatzea, baserrietara bizitak egitea, e.a. izan zen. Baserri batzutan, aterpetxera etorriko ziren hurrei, baserriko gauzak erakusteko prest egongo ziren galdetu nien eta erantzuna baiezkoa izan

zen. Bukatzeko, aterpetxea ezagutaraztera ematen duen triptikoa egin nuen.

Gustora zaude lortu duzunarekin?

Momentuz bai, itinerarioak egitea hasieratik pentsatuta neukan baina aterpetxearena oso zaila ikusten nuen eta hala ere lortu dut.

Momentu honetan zertan ari zara?

Aterpea ezagutaraztera ematen ari naiz Euskal Herriko ikastola desberdinetan. Egin dudana triptikoa bidaltzen diet.

Dagoeneko Araba eta Gipuzkoako ikastoletara bidali ditut.

Etorrizuna nola ikusten duzu?

Oso ondo ikusten dut. Arlo honetan Euskal Herri mailan ekintza mordo bat egiten ari dira eta hemen ezer ez daukagu.

Arrisku-soldata programa, norbere proiektua aurrera ateratzeko aukera ona da?

Bai, oso aukera ona dela uste dut. Askotan ideia asko izaten dira buruan baina hoiiek aurrera eramaten ez zara ausartzen. Guk, gure enpresa bideratzeko ikastaro bat izan genuen eta honez gain “Bultz lan” konsultorioak laguntza handia eman digu. Bultz lan Gasteizen dagoen enpresa bat da eta proiektua bideratzen asko lagundu dit.

Zer esango zenioke bere enpresa montatu gura duen bati?

Proiektu bat martxan jarri aurretik ondo ezagutu behar da norberak landu behar duen alorra. Informazioa ondo jaso behar da eta ausarta izan.

Fatxus taldea garaile Arlutz saskibaloi txapelketan

Pasatu berri den astebukaeran bukatu zen Arlutz saskibaloi txapelketa. Aurtengo honetan "Fatxus and the others" taldea nagusitu zen beste hamar taldeen aurretik. Zorionak beraz talde honi.

Ondorengoak izan dira azken partiduetako emaitzak:

DDK	48	Fatxus	54
Taugres	59	Lexe Gurelesa	52
Aker	85	Peña Zurito	37
Joxe August	0	Esguinçe	2

Klasifikazio generala horrela gelditu da:

1- Fatxus and the others	17 puntu.
2- Esguinçe	17 p.
3- Taugres Bascoña	16 p.
4- Smorfilies	14 p.
5- Lexe	12 p.
6- Peña Zurito	12 p.
7- DDK	11 p.
8- Peña Manolin	10 p.
9- Joxe August	0 p.
10- Aker	0 p.

Arlutz futbito txapelketan apuntatzeko epea zabalik dago

Aurten ere izango da Arlutz futbito txapelketa. Behintzat zeozer izango dugu uztailean egiteko, batzuk ikusteko eta beste batzuk jokatzeko.

Izen ematerako orduan 5.000 pezeta ordainduko beharko dira eta hori bai, dirua izen ematen den momentuan ordaindu beharko da, bestela izen emateak ez du balio izango.

Izen emateko epea **ekainaren 25ean** amaitzen da eta ekainaren 28an hasiko dira lehen partidua jokatzeko. Beraz, izena eman gura duenak Arlutz tabernan egin beharko du.

Arlutz futbito txapelketan izen eman gura duenak ekainaren 25 du azken eguna.



Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

KELER



El León

Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65

GUREA
TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Tfnoa: 79 20 64

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta


IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

ANGELINES



Autozerbitzua
Mitarte, 16 ☎ 79 61 42



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

GEMES

EPILATERM
Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta



Lurrindegia
Opari- denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Iñurrategi anaiak Cho Oyu eta Lhotsera

- Uztailaren amaieran abiatuko dira Nepalera eta urriaren bukaeran etxera itzuli
- Bi mendiak 20 egunetako epean igotzea da beraien helburua

Aurtengo urtean beste helburu berri batekin azaldu dira Felix eta Alberto Iñurrategi. Oraingo honetan bi mendi igotzeko asmoa dute, **Cho Oyu** eta **Lhotse** hain zuzen ere. Gainera 8.000tik gorako bi mendiak 20 egunetako epean igo nahi dituzte. Lan guztia estilo arinean egingo dute, igoera ahalik eta arinen egiteko. Beraien helburua lana azkar eta arin egitea denez, ahalik eta taldekide gutxien biltzen saiatuko dira. Bi anaiak eta laguntzaile bakar bat joango dira, azken hau arduratuko da, espedizioa behar bezala antolatzen. Helburua bi mendiak bide interesgarrietatik igotzea da.


Dagoeneko proiektua aurkeztu dute eta espedizioaren nondik norakoak ondorengoak izango lirake.

Uztailaren amaiera aldera, Nepalera abiatu. Abuztu hasieran aklimatazioari ekin, horretarako 6.000-7.000 metro arteko mendiren bat igotzeko

Cho Oyu 8.201 m.



Lhotse 8.516 m.



asmoa daukate, Gokyo inguruan. Irailaren erdialdera, eguraldia lagun izaten badute behintzat, Cho Oyu (8.201) igotzen saiatuko dira. Mendi hau zailtasun handia azal-

tzen duen bide batetik egin gura dute, Loretan eta Troillet suitzarren bidetik, mendebaldeko hormatik gora. Bide honek 2.500 metroko horma du, haitz zaila eta

70°ko malda izoztua.


Urriaren hasieran Lhotseko tontorrera igotzeko asmoa dute. Lhotse mendira ez da orain artean Estatuko mendizalerik igo eta Felix eta Alberto Estatuko lehenak izan daitezke tontorra egiten.

Lhotse ipar ekialdeko bide arruntetik egingo dute. Mendi honek zailtasun haundienak 8.000 eta 8.500 metro artean ditu, gailurrera iristeko estu-unean hain zuzen ere. Esan behar da, Lhotse mendiak 60° gradutako malda duela edur eta izotz artean.

Iñurrategi anaiek bi mendietako gailurra lortuz gero, horrelako lorpen bat eskuratzen duten Estatuko lehen mendizaleak izango lirake.

Urriaren bukaeran itzuliko dira etxera.


Espedizioak 7.058.000 pezetetako aurrekontua du eta dagoeneko espediziorako dirua ateratzeko kamiseta batzuk atera dituzte eta Murruxoko lokalean daude salgai, 2.500 pezetan.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



EGUZKIGRAF

Aldizkariak

Inpresoak

Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

Kurtzebarri Eskolako eguna

Aurten ere Kurtzebarri Eskolako eguna ospatu zen ekainaren 15ean. Egun osoan zehar ekintza mordo bat egin zituzten, bai irakasle, irakasle eta gurasoek.

Goizean esaterako, Otala-zelaira egin zuten irteera.

Arratsaldean, Guraso Elkarteak urtean zehar antolatutako ekintzen erakusketa eta jaialdia egon zen. Gimnasia erritmikoa, bertso saioa, trikitixa ikastaroan parte hartu dutenen saioa eta baita marrazki eta margo erakusketa ere.

Arratsaldeari amaiera emateko, gurasoek prestatutako "Sketxa" egon zen eta ondoren luntxa ekitaldian parte hartu zuten guztientzat.



Kurtzebarri Eskolakoek antolatutako ekintzen artean gimnasia erritmikoa egon zen.



Ainhoa Agirrezaldegi bergararrak eman du urtean zehar bertso ikastaroa Kurtzebarri Eskolan




Arin-arin eta fandangoa estilo haundiz dantza egin zuten neska-mutikoek. Miriam Priegok eman du trikiti ikastaroa

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA



Aholkularitza

Basabe Industrialdea

Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75

79 75 99

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4

Tfnoa: 79 98 74

ARETXABALETA

**Artano
Taberna**

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

**ARLUTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 ARETXABALETA

Tfnoa: 79 32 34

SHOT!
grabaciones

ARRASATE


Gipuzkoa

SHOT! Grabaketak S.L.

Araba Etorbidea, 3-2. solairua

Eskatu Pabiloia

% 943-79 37 51





Uda garaiarekin batera oporrak, beroak eta festak agertzen dira. Oporrak batek daki! Normalean, eginiko lanaren arabera datoz, zenbat eta lan gehiago egin, opor gehiago, nahiz eta batzuk komenigarriak dira gorputz danoneak beltztu eta dauzkagun gantzak pixkat urtzeko. Eta festak?

Festak, garai baten, gorputzaren lasaigarri eta animaren onuragarri ziren. Eguneroko egunerokotasun gogaikarria apurtu eta, egun batzutan sikera, tristurak ahaztuz, musikoez jaurtitako musika oharrak jarraituz bizitzaren soka-dantzari edo izatearen dantza-sokari lotzen zen jendea.

Atxabaltako Musika Bandatik eta beste erritmo batzuk landu eta eskaini guran, CALYPSO izeneko orkestina sortu zen, lehen aipatu ditugun festak alaitzeko asmoz. Orkestina hau 1959. urtean sortu zen eta ikusten dugunez ez zitzaion ezertxo ere falta; alkondara eta korbatak ere garaikoak.

Euren lanak, ezkontza festatan, auzoetako jaietan eta Sala de Fiestas-etan burutzen zituzten. Izena Pablo Perez-i bururatu zitzaion, orduan modan zegoen musika erritmo bat gogora ekarriz. Hortik aparte, gogora dezagun KALYPSO izeneko ninfa, Greziar Mitologiako pertsonaia dela, odisean agertzen dena. Ikusten dugunez, izenak ere ba du bere historia.

Argazkia, gaur egungo TOKI ONA tabernaren atzekaldean atera zuten. Ordurako, gazte bat eurenganatu zuten.

Ezkerretik hasita: **Luis Eraña, Eugenio Lacalle, Pako Pérez, Bernabé Makazaga, Pablo Pérez** eta **José Almarza**.

Orkestina hau (orduan orkestina esaten zitzaion) Euskal Herrian sortu zen lehengotariko bat dugu dudarik gabe.

Iñaki Urreta Leturiondo
Aitor Antxia Leturia

Atxabaltarrak zopan



J.J. Aretxaga

Samur ikusten dira atxabaltarrak bazterretan. Herri Urratsera fan, eta atxabaltarrak. Kilometrotara fan, eta atxabaltarrak. Araba Euskarazera fan, eta han be, atxabaltarrak leku guztietan. Esaten dute Baigorriko Nafarroaren Egunean bi jende mota zegoela: iparraldekoak, eta atxabaltarrak.

Soldadutzara fan eta han atxabaltarrak ez. Zergatik ete da? Joan zen martizenean **Jon Sarasua** epaitu zuten. Arrazoa, intsumisioa izatea. Festa edarra montatu zuten bertsolariak, Tapia kalean trikitixa jotzen, kuadernilo bat be atara zuten intsumisioaren inguruko bertsoekin... Hurrengo egunean barrez, beste atxabaltarrak bati egin zioten epaiketa, **Jon Ander Ugaldere**. Deskuidoan atxabaltarrak ikusten

baduzue soldadutzan, esaiozue ez dela enteretan.

Udaletxeko zerak be egin dituzte, joan den zapatuan. Alkate barria daukagu: **Juan Antonio Rodriguez**. Istilutxoak izan ziren gurean be. Bera hautagairik botatuena ez dela eta, pankartarekin azaldu ziren HBkoak. Jende pilatxoa elkartu zen plenora, eta giro tenso samarra egon zen. Udala osatu aurretik mahaia osatzerakoan hala eskatzen delako jakin genuen zeintzuk diren zinegotzirik zaharrena eta gazteena: **Adolfo Etxebarria** eta **Mikel Otero**. Zela banatuko ete dituzte herriko ardurak? Geure lanerako, kulturarako eta euskerarako, ea ze jende toketan den.

Udaletxean bapo dabilzanak langileak izango dira. Mordoa daude haurdun edo umea izan barri. Ez goaz izenak jartera, batzuk euren 'intimidadea' txarto ulertzen dute eta.

Expres tabernak egiten duen kiniela txikian, azkeneko poteko dirua etxean geratu da: **Antonio Guisadok** asmatu zuen asmatu beharrekoa. Neuk ez dut jokaketan, eta futboleko kontuetan, gutxiago.

A R E T X A Z O K A

LANA

- REMeko klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Deitu 3rak aldera, 79 48 38 telefonora.
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Astean 2 ordu. Interesatuok deitu 79 83 90 telefonora. (8etatik-10etara ilunkaran)
- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago. Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

ETXEBIZITZA

- Garaje bat alokatuko edo erosiko genuke Lausita auzoan. Harremanetarako telefonoa: 79 64 06
- Garaje bat alokatzen da, Otalora 11n. Interesatuak deitu 79 47 62 telefonora.
- Neska batek pisu bat alokatu gura du Atxabaltan. Bere telefonoa ondorengoa da: 79 49 70


- 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi kalean dago. Telefonoa: 79 01 17
- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden. Deitu 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu letatik ordubietara edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

SALMENTA

- Renault 5 markako kotxe gorria salgai dago. Matrikula SS-U. Telefonoa: 77 06 40 (Begoña).
- Sukaldeko altzariak (ekonomika eta guzti) eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean eta merke. 79 01 66 (eguerdian eta gaeuz, Arantzazu)


Felix Arrese

“Guk tantaia jaso genuen urtean
gruaz altxatu zen”



Felix Arresek bederatzi urte daramatza Atxabaltan edari banatzaile lanetan. Bere aurretik lan hori egiten zuen pertsonak utzi egin zuen lana eta Felixek hartu zuen.

- **Gustora zaude zure lanarekin?**
Bai.
- **Aldatuko zenuke?**
Bai, oso lotua da eta. Fabrika baten zortzi ordu lan egitea nahiago dut.
- **Kontabilitate kontuak zuk eramaten dituzu?**
Bai.
- **Non banatzen dituzu edariak?**
Atxabaltan, Eskoriatzan, Gatzagan, Untzilan, e.a.
- **Ze zerbeza mota saltzen da gehien?**
Keler-a saltzen dut nik gehien.
- **Eta zuri zein zerbeza gustatzen zaizu gehien?**
Cruz Campo.
- **Atxabaltan asko edaten dela uste duzu?**
Larregi.
- **Laster San Juan Bezpera ospatuko dugu eta kintoek tantaia altxatuko dute, zuk zer oroitzapen duzu egun horretakoa?**
Gure kintan gruak altxatu behar izan zuen tantaia. Goizeko 3etan agertu ginen tantaiarekin eta 6rak arte aritu ginen jaso guran. Azkenean ez genuen jasotzerik lortu eta hurrengo egunean gruaz jaso behar izan genuen. Gainera orduan tantaia ez zen plazan jasotzen Muruamendiaratz aurrekaldean baizik. Hurrengo urtean plazan jaso zen lehen aldiz.
- **Non egin zenuen soldaduzka?**
Menorcan.
- **Ze oroitzapen duzu?**
Ez genuen ezer egiten, kamioiak deskargatzen ibiltzen nintzen.
- **Zein da zure kalitate txar bat?**
Azkar hasarrazten naizena, baina gero azkar pasatzen zait haserrea.
- **Zein janari duzu gustoko?**
Baba gorriak.
- **Atxabaltako zein jai gustatzen zaizu gehien?**
Andramaixak.
- **Ikusi duzun pelikula polit bat...**
El “Expreso de media noche”, 8 bider ikusi dut.
- **Sukaldari lanetan ibiltzen zara?**
Soziedadean bai baina etxean ez.
- **Eta bukatzeko Felix, ze baloratzen duzu neska batetan?**
Zintzotasuna.



Leandro Zalaña dugu aurreko alean saritu suertatu zena.
On egin!!!

Animatu zaitetzte eta idatzi.

Beheko galdera ondo erantzun eta saritu suertatzen denak, **Muruamendiaratz** gozotegiak oparitutako **tarta** goxo bat irabaziko du.

Erantzun guztiek **ARETXAGAZETAREN** bulegoan egon beharko dute, datorren eguna baino lehen. Azkar ibili eta ez ahaztu idaztea.

Gozotegia

Izozkitegia



Durana, 2 • Tfnoa. 790788 • ARETXABALETA

Duela zenbat urte sortu zen Loramendi dantza taldea?

a.- 29 urte _____

b.- 25 urte _____

d.- 28 urte _____

*Aurreko aleko erantzuna “Helduen Heziketa Iraunkorra” da.



Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Ekainak 30

ERAKUSKETA

Ekainaren 30etik uztailaren 9ra bitartean, **Kirol argazki lehiaketaren** erakusketa izango da Kultur Etxean.

Ekainak 30 eguakotxa

IGOERA

Santa marinatik, San Martzialera igoera, Letania errezatuz.

Ekainak 15etik 25era

ERAKUSKETA

Xamatx dantza taldeak antolatuta argazki eta jantzien erakusketa egongo da Kultur Etxean.

ARRASATE



San Juanak

Ekainak 23tik 26ra

SAN JUANAK


Zapatuan goizeko 9etan **entzierroa** egongo da eta gaueko 11,30etan **SUZKO ERRUERAK**.

Igandean, goizeko 9etan **entzierroa** eta ostean 9,30etan **txirindulari lasterketa** egongo da. Arratsaldeko 7etan **ZEZEN JAIALDIA, ZEZEN PLAZAN**. Gauean 11etan **TARANTELA** orkestarekin dantzaldia.

Astelehenean, eguerdiko 12etan **herri kirolak** eta 2,30etan **herri bazkaria** Zaldibarko pilotalekuan. Gauean **HAITZAMA** taldearekin dantzaldia egongo da.

Ekainaren 23tik 26ra, **ATBk** Sebero Altube plazan jarriko duen platotik zuzeneko emanaldia eskainiko du egunero eguerdian (12,30etatik 2,30etara) eta arratsaldez 6etatik 8etara.

ESKORIATZA



San Pedroak

Ekainak 28

Egun osoan zehar ekintza mordo egongo dira. Gaueko 12,15 **su artifizialak** egongo dira eta ondoren dantzaldia **IZOTZ** taldearekin.

Ekainak 29 eguena

Arratsaldeko 6etan "**Hauskalo**" taldearekin **umeendako antzerkia** egongo da herriko plazan. Gauean esku pilota partidua egongo da 10,15etan eta ondoren **PAPILLON** taldeaz dantzaldia.

Ekainak 30 eguakotxa

Goizeko 9,30etan "San Pedro Sari Nagusia" **txirindulari lasterketa**.

12etan frontoian **haurrentzako parkea** izango da.

Arratsaldeko 6etan Gorosarri dantza taldearen **Euskal Dantzak**.

Gauean **KOXKA** taldearekin dantzaldia eta ondoren plazan **karaoke** lehiaketa.

Uztailak 1 zapatua

Eguerdiko 12etan sokamuturra izango da plazan, arratsaldeko 8etan berriz ere sokamuturra.

Eguerdian herri bazkaria izango da frontoian.

Gaueko 10etan Rock kontzertua izango da frontoian: **SS-77, La txusma** eta **Kontrastes** taldearekin. Gaueko 11etan hasita **HAITZAMA** taldearekin dantzaldia.

Uztailak 2 domeka

Eguerdiko ordu 1etan **eskalada exhibizioa** egongo da polikiroldegian. Arratsaldeko 6etan berriz **herri kirolak** ikusteko aukera egongo da Gorosarri plazan.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gorrolegia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Mitarta, 1 - Tfn. 77 00 81

*Aretxabaleta
Obrador Propio*

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

ARETXABAETA



Ekainak 23 eguakotxa

SAN JUAN BEZPERA

Ikus egitarau berezia

Ekainak 25 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaeta-Oñate-Udana-Zumarraga-Azpeitia-Zumarraga-Deskarga-Bergara-Aretxabaeta. Guztira 100 Km. izango dira. Irteera goizeko 8,30etan izango da Zaraia kaletik.

MENDI IRTEERA

Zaraia M.T. Aldaminera, egingo du irteera.

Uztailak 1 zapatua

79.URTEKO KINTOEN AFARIA

79. urteko kintoen afaria izango da uztailaren 1ean Taberna Berri jatetxean. Izena ematerakoan 1000 pezeta ordaindu beharko da. Poteoa 8,30etan hasiko da Taberna Berrin eta afaria 9,30etan izango da.

Uztailak 2 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaeta-Landa-Ollerias-Barazar-Zeanuri-Igorre-Dima-Otxandiano-Legutiano-Landa-Aretxabaeta. Guztira 100 Km. izango dira eta irteera goizeko 8etan izango da Zaraia kaletik.

Uztailak 9 domeka

ARETXABALETAKO IX. MARGO LEHIAKETA

Loramendi K.E.ko **Tril Emakume Taldeak** datorren uztailaren 3tik San Migelak arte **euskal dantza ikastaroa** antolatu du. Erakutsiko diren dantzak, **fandangoa, arin-arina, eta Beinke Loramendi dantza herrikoia** izango dira. Apuntatzeko jo Loramendiko lokalera ekainaren 28a baino lehen.

*** Gerontologiako ikastaroak**

emango dira Arrasaten ICTEK antolatuta. Gaiak ondorengoak dira:

- 1- **Osasun psikikoa zaharengan**
- 2- **Pertsona naguziendako arreta programak**

Uztailaren 3tik 6ra bitartean emango dira bi ikastaroak eta ordutegia arratsaldeko 5,30etatik 8etara bitartekoa da. Biak 10 orduko ikastaroak dira.

Ikastaroetan apuntatzeko epea zabalik dago.

Pertsona nagusien zainketa eta ardurarekin erlazioa daukaten profesionalei eta inolako esperientzia ez duten eta arlo honetan hezi nahi duten pertsonen zuzenduta dago ikastaroa.

Informazioa eta izen ematea ondorengo telefonoetara deituz egin dezakezue: 79 02 11/77 05 00 goizeko 10etatik ordu letara eta arratsaldeko 2,30etatik 6,30etara. Ana Bujandagatik galdetu.

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaeta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxiko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAETA



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28

ARETXABAETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

MUGARRI



**Bigarren eskuko autoak,
garantia oso osoaz!**

AUDI	90	4x4	SS-AJ
OPEL ASTRA	GSI		NA-AL
NISSAN TERRANO		4x4	SS-AM
NIVA	TDI	4x4	VI-0
ORION	1.6 i	Si	SS-AK
ORION	1.6 i	Si	SS-Z
BX	TR	TURBODIESEL	SS-AG
TRANSIT	2.5	DIESEL	SS-AG
FIESTA	11	CL	SS-AD
OPEL CALIBRA	2.0 i		B NJ
FIAT DUCATO	Di		VI-M
PEUGEOT FAMILIARRA		TDi	LT

**Autoak berrikusi, probatu eta kontrolatzeaz
gain, garantizatu egiten ditugu.**